



## KONTSULTA PUBLIKOAREN IRAGARKIA

Administrazio Publikoetako Prozedura Administratibo Arruntari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz, arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko helburuarekin, **Buruntzaldean bazterkeriako arrisku egoeran dauden pertsonentzako tutoritzapeko etxebizitza zerbitzuari buruzko araudiaren** proiektua egin aurretik, pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasotzen da, hauei etorkizuneko araudiak eragin baitiezaieke:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Horiek onartzeko beharra eta aukera.
- c) Araudiaren helburuak.
- d) Konponbide arautzaile eta ez arautzaile posibleak.

Hala nahi duten herritar, erakunde eta elkarteek beren iritzia helaraz ditzakete galdetegi honetan adierazitako alderdien inguruan hamar eguneko epean, iragarki hau udal webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arruntaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako moduetako edozeinetan.

<b>Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak</b>	Gizarte bazterketarako arrisku altuan aurkitu daitezkeen herritarren egoerak ez areagotzea, transizio-prozesuak ahalbideratzea, ahal den neurrian, egoera normalizatzeko bideak jorratzeko aukerak gauzatzea.
<b>Onartzeko beharra eta aukera</b>	Gizarte Zerbitzuen Legearen garapenari lotuta (abenduaren 5eko 12/2008 Legeak), Eusko Jaurlaritzak 2015eko urriaren 6an Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretua onartu zuenetik, Buruntzaldea eskualdeko udalek beharrezkoa ikusten dute indarrak batu behar dituztela Gizarte Zerbitzuen Mapa garatzeko.

	<p>Araudiak aztertzen du, era berean, eskumena duten administrazio publikoen arteko lankidetzaren esparrua, bai eta programazioaren eta plangintzaren esparruak ere.</p> <p>Gizarteratzeko modu koordinatu eta globalean biltzen ditu bazterketa-egoeran dauden pertsonak gizarteratzea lortzeko administrazio eskudun guztien jarduerak bideratu behar dituzte.</p> <p>Gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko 2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuetan alojamendua emateko zerbitzuak udalen eskumenekoak direla esaten du.</p>
<p><b>Arauren helburuak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Gizarte bazterketarako arrisku maila ez areagotzea.</li> <li>. Erabiltzaileak transizio-prozesuak egitea egoeraren normalizaziorako prozesuak aktibatzea.</li> <li>. Bizimodu autonomoa garatu ahal izateko, trebetasun pertsonalak berreskuratzeko (autoestimua, konfidantza Pertsonala) eta garatzeko prozesuak gauzatzea.</li> </ul>
<p><b>Konponbide arautzaile eta ez arautzaile alternatibo posibleak</b></p>	<p>Araudiak barneratu eta zehaztuko ditu zerbitzurako sarbide-baldintzak, prozedurak eta kudeaketa egokirako kontutan hartu behar diren gai guztiak, zerbitzua emateko bere onarpena ezinbestekoa izanik.</p>